

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure gimnasioan bezero berriak lortzeko, haiei eusteko eta, gero, salmenta kopurua handitzeko, hurrengo harremanak izango ditugu haiekin:

- **Laguntza pertsonala:** hasieran, langileek zuzenean bezero berriei aplikazioa eta makinak nola erabili azalduko diete.



- **Dedikatutako laguntza pertsonala:** gimnasioko entrenatzaileek bezeroei arreta zuzena eskeiniko diete, tekniken azalpenak eta ariketak azalduko dizkiete eta hainbat arlotan bezeroei aholkatuko diete.



- **Zerbitzu automatizatuak:** makinek eta aplikazioak entrenamendu pertsonalizatuak sortuko dituzte automatikoki, bezeroaren profilari egokituta.



- **Autozerbitzua:** bezeroek beren planak eta errendimenduaren jarraipena aplikazioan ikusi eta kudeatu ahal izango dute.



- **Komunitatea:** aplikazioaren bidez bezeroen artean erronkak eta esperientziak partekatzeko aukera egongo da, motibazioa handitzeko.

